



IES PIO BAROJA BHI Elcano 2, 20302 Irun (Gipuzkoa) 943899297

www.iespiobarojabhi.net 013013aa@hezkuntza.net

Kaixo guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte Pio Barojara.

Andoni Albisu naiz, zuzendaria.

Ez nuke aurkezpena gehiegi luzatu nahi, horretarako nahikoa informazioa duzue ikastetxeko web orrian, edo hori da guk uste duguna. Bertan murgiltzen hasi aurretik jaso eskerrak gure ikastetxea aukeratzeagatik.

Bi gauza azpimarratu nahi genizkizueke. Zuen seme-alabentzat etapa berri bat hasiko da hemen, Pio Baroja Institutuan, eta berria den orotan bezala, bai haiek eta bai zuek zalantzak izango dituzue, agian kezkatu egongo zarete, eta zergatik ez esan, beldurtuak ere bai. Hori guztia logikoa da, denak horrela daude, eta gu ere horrela egon ginen. Etapa berri baten hasiera da, besterik ez; ez gehiago, ez gutxiago. Hala ere, etapa berria izateak badu bere alderdi atsegina. Zentroz aldatzeak aukera berriak eskaini ditzake. Inork ez zaituzte ezagutzen hemen zentroan eta zuen ametsi eta egitasmoei forma ematen hasteko abiapuntu berria izan daiteke.

Jakin, gure aldetik laguntza izango dutela ikasleek; orientatzaileak, tutoreak eta irakasleak hor daudela. Zuzendaritza taldea osatzen dugunok ere ahal den neurrian laguntzen saiatzen gara dituzuen zalantzak eta kezkek argitzen eta arintzen.

Pio Baroja Institutuan hainbat Irundar zein ingurukoek hasiko duten bidaia ahalik eta atsegina izan dadila eta zuen seme-alaben egitasmo eta proiektuak gauzatu daitezela opa dizuegu.

Andoni Albisu

